

**Forum
BARCELONA
2004**



Joan den maiatzaren 20tik 23a bitartean, Bartzelonan, Munduko Kulturen Forumaren barruan, Linguapax Biltzarra egin zen. Hizkuntza-politiken gainean egiten den biltzar horretan parte hartu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Araceli Díaz de Lezanak. Hain zuzen ere "Modelos positivos de políticas lingüísticas" izeneko tailerrean euskararen garapen teknolinguistikoa buruzko ponentzia aurkeztu zuen. Batetik, hizkuntzen teknologien erronkaren aurrean Eusko Jaurlaritzak abian dituen plan estrategikoen berri eman zuen eta, bestetik, euskarak arlo horretan orain arte lortutako garapen-maila aurkeztu zuen. Izan ere, euskararen infoingeniaritza linguistikoa pauso garrantzitsuak eman dira azken urteotan eta, honez gero, Informazioaren eta Komunikazioaren Gizartean euskaraz aritzeko ezinbesteko diren hainbat tresna, erreminta eta bestelako produktu ditugu esku-argarri (softwareak, hiztegi elektronikoak, zuzentzaile ortografikoak, web guneak, bilatzaileak, edukiak eta zerbitzuak eskaintzeko eszenatoki birtualak, corpus elektronikoak...); beste batzuk aurki izango dira aplikazio desberdinetan integratzeko moduan (ahotsa sintetizatze-ko eta ezagutzeko motoreak, kasurako) eta beste batzuk epe laburrean sortu egin beharko dira (itzulpen automatikorako erremintak, dokumentazio-bolumen handiak kudeatzeko sistemak...).

Beraz, hizkuntzen teknologiei dagokienez, lanean jarraitu beharko dugu administrazioetan nahiz ikerketa edota produkzio-mailan aritzen diren taldeetan, Teknologia Berriek sortutako espazio linguistiko berrian euskararen presentzia ziurtatu nahi bada.



Euskarak azpiegitura berri eta balioitsuak izango ditu laster. Orain arte sakabanaturik zeuden zenbait, adibidez, elkarrengana jo dute egoitza berriak babes harturik. Bizkaian, "Euskararen Etxea" irekiko du Foru Aldundiak aurten bertan, Bilboko San Inazio auzoan. Etxeak 800 metro koadro izango ditu, lau solairutan banaturik, euskara sustatzeko asmotan lanean ari diren zenbait elkarteren egitekoa lagutzeko. Bertan izango dute egoitza berria Bizkaiko Ikastolen Elkarteak (BIE), Euskal Idazleen Elkarteak (EIE), Mendebalde Alkarteak eta Topaguneak. Proiektu aitzindaria ere hartuko du Euskararen Etxeak, Euskararen Interpretazio Zentroa; horrekin batera, euskararen inguruko ikerlarien esanetara jarriko den mediateka bat ere izango du.



Gipuzkoan ere biltzera jo dute zenbait elkartek, egoitza berri baten gerizan. Mintzola etxea, "Ahozkotasuna bultzatzeko etxea" ireki dute Billabonan (Gipuzkoa). Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Billabonako Udalak bultzatu dute proiektua eta Euskal Herriko Bertozaile Elkarteak, Xepelar Dokumentazio Zentroa eta Lanku bilduko dira bertan. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ildotik dator Mintzola, euskara sendotuko duten egiturak behar direla esaten baitu Plan horrek.



Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Europa Press berri-agentziak lankidetzak hitzarmena sinatu dute. Lankidetzak horri esker, esandako agentziak zabal-tzen dituen berriak euskaraz ere zabalduko dira eta, ondorioz, euskararen presentzia ugalduriko egin ahal izango da hedabideetan. Guztira, 30.000 euro jasoko du Europa Press-ek.

Bat-bateko itzulpen sistema berria sortu du Aretxabaletako Dualia enpresak. Telefono bidezko itzulpena da eta enpresa horrek berak patentatu duen sistema du oinarri: sakelako telefonora konektatzen den biaurikularra. Sistema berriak 30 hizkuntza ezberdinetan eskaintzen du interpretazioa eta 60 deiri berehala erantzuteko gaitasuna du. Gaur egun, Fagor, Ulma eta Danobat Dualiaren zerbitzuak erabiltzen ari dira eta, laster, horretan hasiko da Bilbao Exhibition Center (BEC) bera ere.



Apaiz, idazle eta euskaltzalea, ekainaren lehenengo egunean hil zen Anastasio Arrinda Albizu "Anes Arrinda" (Lekeitio, 1912 – Deba, 2004). 1965ean argitaratu zituen lehen lanak: *Catequesis Infantil* eta *La religión prehistórica de los vascos*. Geroago, euskarazko lan ezagunok kaleratu zituen: *Juantxo-Txiki*; *Oto ta Pototo*; *Euskaljerri zaarra: gu euskaldunok*.

Kalegats

Kalegats aldizkariaren 4. alea argitaratu du Euskal Idazleen Elkarteak (EIE). Bertan, itzulpengintzari eskaini dizkiote orri gehienak. Tartean, Koro Navarrori egindako elkarrizketa da nabarmen, EIEren itzulpengintza egitasmoari dagokion berriarekin batera. Aleak, bestalde, elkarteko bi lehendakari ohiren testuak dakartza, Patri Urkizurena, batetik, eta Andolin Eguzkitza zenarena, berriz, bestetik.

Kalegats seihilabetekaria da eta, HPSren laguntzaz, euskarri informatikoan ere ageri da www.idazleak.org helbidean.



Euskal lokuzioen berri izan nahi duenak badu nora jo: www.armiarma.com/intza helbidera, hain zuzen. Bertan Intza proiektua aurki daiteke. Proiektuaren abiapuntua eta oinarria Koldo Izagirrearen bilduma da (*Euskal Lokuzioak*, 1981), baina osagarri garrantzitsuz hornituta dator. Joxan Elosegik, Koldo Izagirrek eta Josu Landak osatu dute Intza Proiektua.

Egitasmoak *Zeruko Argia* aldizkaria sortu eta zuzendu zuen Damaso Intza (Intza, 1886 – Iruñea, 1986) fraide frantziskotarraren izena hartu du.

Erein-Euskadiko Kutxa eta Donostia, *Opera Prima* narratiba sarien deia egin dute. Euskaraz idatzitako lanak izan behar dira eta, gutxienez, 100 orrialdeko luzera izango dute. Lanak helbide honetara bidali behar dira, 2004ko abenduaren 20a baino lehen: Erein. Erein-Euskadiko Kutxa Narratiba saria. Tolosa etorbidea 107. 2008 Donostia.



BERTSOLARI

Apaiz eta fraide bertsozaleak elkarriketatu ditu *Bertsolari* aldizkariak 53. alean. Zenbakiak *Apaiz bertsozaleak* du izenburu eta bertsoaren munduarekin estu lotutako zenbait erlijiosoren iritziak bildu ditu. Askoren artean, Nikolas Segurola, Mixel Lekuona eta Joxe Mari Aranalde ageri dira bertan.

1991n sortu zuen aldizkari hau Bertsozale Elkartearen inguruan lanean ari zen bertsolari, kazetari eta bertsozale talde batek, eta bertsoak berezko dituen alderdiak ditu ardatz: bat-batekotasuna, ahozketasuna eta memoria, besteak beste.

Alizia *haurrentzat*, Lewis Carrollen liburua itzuli du Manu Lopez irakasle eta idazleak Pamiela argitaletxearentzat. *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* (1864) eta *Ispiluan barrena* (1869) idatzi eta gero, haurrek beste bi lanak baino errazago ulertuko zuten bertsoia egin nahi izan zuen Lewis Carrollrek, eta *The Nursery Alice* (1889) idatzi, hau da, oraingo *Alizia haurrentzat* berau. Manu Lopezek berak itzuli ditu Aliziaren hiru liburuok euskarara.



Arto Campion (Iruñea, 1854 – Donostia, 1937) eta hark bizi izan zuen garaia aztertzeko asmatan, jardunaldiak egin zituen Eusko Ikaskuntzak Iruñeko Nafarroako Museoaan ekainaren 7tik 10era. Jardunaldietan zehar Bigarren Gerra Karlistaren ondoren garaiko nafar intelektualek egindako lanaren berri eman nahi zuten antolatzaileek.

Ekaineko jardunaldiak gorabehera, udazkenean ere antzeko hitzaldiak eratuko dituzte gainerako hiriburuetan, bai eta Nafarroako zenbait herritan ere.



Arturo Campioni buruzko berri gehiago nahi izanez gero, jo Bidegileak bildumara (www.euskadi.net), edo Literaturaren Zubitegi-
ra (www.armiarma.com).



Teologia lanak euskaraz lantzen eta argitaratzen ari da Deustuko Unibertsitatea, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaz. Dagoeneko, hemeretzi liburu jarri ditu kalean *Erlijio Kulturaren Bilduma* izenekoa, kalitate handikoak denak ere, Joxe Arregi frantziskotarraren zuzendaritzapean.

Bildumaren gaineko berri gehiago: www.teologia.deusto.es helbidean.

Erlijio gaiak euskaraz lantzeko beste bide bat eskaintzen du, bestalde, Donostiako Elizbarrutiaren web guneak: www.elizagipuzkoa.org.



Apirileko alean *Gazteberri* gazteentzako informazio aldizkari berriaren lehen alea iragarri genuen. Oraingoan, aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu dela esateko moduan gara. Aldizkariak dakartzan edukien artean dira, adibidez, Elgoibarko larunbat gauen gaineko erreportajea, euskarazko antzerki testuei (www.teatroa.com) eskainitako tartea edo musika, liburuak eta agenda atalak, adibidez.


Leizaola Elkarteak landu du *Gazteberri* proiektua, *Unibertsitateko Aldizkariarekin* batera.

Ondoko mapak euskarak azken urteetan izan dituen galera eta irabaziak erakusten dizkigu.

Iparraldean, irabaziak baino askoz gehiago dira galerak, eta nahiz eta hauek zertxobait mantsotu adin-talde gazteenen artean, esan behar da euskararen geroa oraindik ere oso ilun dagoela.

Nafarroan, galerak kontuan hartzeko modukoak diren arren, irabaziak haiek baino gehiago dira adin-talde gazteenean eta, ondorioz, joerak bere horretan irauten badu eta kontrako partehartzerik ez bada, poliki-poliki euskara indartu egingo da.

Azkenik, EAEn, galerak erabat murriztu dira eta irabaziak nabarmenak dira, eta ez adin-talde gazteenetan bakarrik. Irabaziok, euskaldunen kopurua nabarmen hazteaz gain, zeresan handia izango dute euskara lehen hizkuntzatzat geroratzeari dagokionean.



Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistikako inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzaren



Getxoko leku izenak liburua eta udalerriko topografia mapa argitaratu ditu Getxoko Udalak. Liburuak 1.259 toponimo biltzen ditu, berorien azalpen eta argazkiekin batera. Mikel Gorrotxategik eta Sofia Susok burutu dute lana, 500 aleko tirada du eta 15 eurotan salduko da herriko liburu dendetan.

Roger Etchegaray apaizak jaso du 2004 urteko Unesco-ren Bake Saria. Eliza Katolikoko kardinala den Etchegaray Ezpeletan sortu zen 1922an eta Uztaritzeko eta Baionako apaiztegi-tan ikasi zuen. 1947an apaiztu zen eta kardinal izendatu zuten 1979an. Aita Santuaren Justizia eta Bakea Kontseiluko presidente izan zen 1984tik 1998ra eta, harrezkero, krisi egoera larrian zeuden munduko hainbat herrialde bisitatu zituen Aita Santuaren izenean. Haren izena aipatu eta "bakearen aldeko euskalduna" dela diote hedabide askotan.



Lingua Navarrorum bilduma abiarazi du Hiria argitaletxeak, Aitor Arana idazle eta hizkuntzalariaren zuzendaritzapean. 21 ale izango ditu eta Nafarroan hitz egin eta desagertu diren euskalkien ezaugarriak erakustea du helburu. Oraingoz, bildumako lehen bi aleak kaleratu dituzte: *Artzibarko hiztegia* eta *Zaraitzuerazko irakurgaiak*.





Labayru ikastegiak azken urteotan euskalgintzan egindako lana garrantzi handikoa izan da, batez ere euskara sustatzeko eta bizkaieraren normalizazioa lortze aldera egindakoa. Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) 2000. urtean hasitako lankidetzari jarraipena ematea erabaki du. Horretarako, 2004. urtean HPSk, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Labayru ikastegiak esparru-hitzarmen berria izenpetu dute datozen 4 urterako, horrezaz gain, arestian aipaturiko Herri Agintek aurtengo protokoloa ere sinatu dute. Bertan, 2004. urtean Labayru ikastegiak jasoko duen diru-laguntza (261.183,00 eurokoa) eta gauzatuko dituen lanak ezartzen dira, hala nola, literatura arloko zenbait ikerketa; Atlas etnografikoaren euskal lexiko tematikoa (Herri-medikuntza); eta ohiko jarduerak (euskal lexiko-corpusaren datu-basa etengabe gaurkotzea; web gunea eguneratzea; bizkaieraren egokitasunari eta kultura-gaiei buruzko aholkularitza; ikerketa-egitasmoen ebaluazioa eta Euskal Biblioteka).



EITBko kazetariak hizkuntzalariei egindako kontsulten erantzunak argitaratzen ari dira Azepeitiko Euskara Patronatuaren www.era-bili.com helbidean. Kazetariak egindako kontsultak terminologiari buruzkoak, ahoskerari dagozkionak edo, besterik gabe, gramatikazkoak dira. Maiatzaren 14az gero, eguneroko albisteen kontakizuna egiteko EITBk landu dituen irizpideak ageri dira web gunehorretan.



Lan-kontratuen ereduak euskaratzen jardun du INEMek azken urte hauetan. Hainbat gorabehera tarteko, euskarazko ereduak ezin izan du lortu gaztelaniazko ereduaren pareko zabalkunderik orain arte eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara hutsezko kontratu-eredu horren banaketa berezia antolatu du eta hainbat enpresari helarazi. Eredua lortu nahi izanez gero, nahiko da eskaria ondoko helbidera egitea: enpresak@ej-gv.es.



Erriberriko ikerlari den Angel Jiménez Buirrunek 1574ko notario-agiria aurkitu du Nafarroako Gobernuako Protokolo Notarialen Artxibategian. Aipatutako agiriak Ezpeletako jaunari ohar egitea du helburu, jakinaraziz hiribilduko pregoilariak baino ez dutela bandoa jotzeko eskubidea, jaunaren morroietarik batek plazan jendaurrean emandako abisu bat gaitzetsiz. Kontua da morroiak euskaraz besterik ez zuela eman abisua, astegun gorrian, ez azokarik ez jaiegun berezia zenean, eta, hortik, euskara Erriberriko biztanleek erabiltzen zuten ohiko hizkuntzetarik bat zela ondorioztatu da.



Maiatzaren 17an itxi zen udalek beren euskara-planen zereginetarako Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza eskatzeko epea. 113 udal aurkeztu dira aurtur, iaz baino hogeita gehiago. Udal horiek helburu desberdinetarako egindako eskabideen artean, EBPN planak mamitzeko laguntzetarako eskariak ere bereziki igo dira iaztik hona, 13 eskari jaso baitziren iaz, eta 45, aldiz, aurtur.



Euskaraz nabigatzeko gero eta aukera handiagoa dute gazteak. Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak, esaterako, gazteak euskaraz bizi daitezela saiatzen da, beraiei dagokien informazioa eskuratzeko baliabideak euskaraz eskainiz. Horietan nabarmenena www.gazte-ukera.net ataria da. Bertan, Gazte Planak eragina duen arloetako hainbat informazio eskaintzen da Internet bidez: Aisia, Lana eta Prestakuntza, Etxebizitza, Hezkuntza, Ekologia eta Ingurumena, Osasuna eta Gizarte.

Informazioaz gain, Gazte Aukerak interakziorako hainbat bide ere eskaintzen du.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es